

Elkartasun suziriak entzun dira Euskal Presoak dauzkaten 52 kartzeletan

PRESOAK ASKE :: 31/08/2020

Gure herrikideei elkartasuna eta maitasuna eraman nahi izan dizkiegu, Euskal Herrian eta aske nahi ditugulako”.

Larunbatean, abuztuaren 29an, gaueko hamaiketan eta era sinkronizatuan, suziriak jaurti dituzte euskal presoak dauden kartzela guzti-guztien atarian. Orotara, frantziar eta espainiar Estatuetak 52 kartzelatan daude sakabanatuta euskal presoak eta guztiei elkartasuna helarazteko 58.694 km egin behar izan dituzte ekintzaileek, senide eta lagunak asteburuero egin beharreko berberak.

Salbuespen politikek eta sakabanaketak presoek eskubideak urratzen dituztela salatu nahi izan dute ekimen honen bidez. Gainera, COVID19-aren aitzakiapean hartutako neurriek presoek bizi-baldintzak are gehiago gogortu dituztela gogorarazi dute.

Ekintzaileetarikoen hitzetan: “Euskal preso politikoekiko elkartasunak ez du inoiz etenik izan eta ez du izango. Gure herrikideei elkartasuna eta maitasuna eraman nahi izan dizkiegu, Euskal Herrian eta aske nahi ditugulako”.

<https://eh.lahaine.org/elkartasun-suziriak-entzun-dira-euskal>